

“Berriztagarren bilakaera ez da behar bezala landu Espainian”

Isabel Diez

SEO/BirdLife erakundeko
Energia eta Klima-aldaketa
teknikaria

Berriztagarriak bai, baina ez orain arte sustatu diren moduan, horixe dio Isabel Diezek, Espainiako Ornitologia Elkartearen (SEO/BirdLife) Energiaren eta Klima-aldaketaren arloko arduradun denak. Haren iritziz, administrazioek ez dute ongi planifikatu energia berriztagarren gaia, eta kalte handiak gertatu dira zenbait ekosisteman eta horien bioaniztasunean. Teknologiarik kutsatzaileenak ordezkatu behar direla dio, eta, batik bat, aurreztu.

Dioten bezain berdeak al dira energia-iturri horiek? Beste energia mota batzuk baino berdeagoak, baina ez kaltegabeak. Berriztagarren alde gaude, baina ez gatoz bat orain arte egin denarekin.

Zer egin da gaizki? Egin zitezkeen planifikazio hobea, ingurumen-kostu gutxiago eragin zezaten, enpresa txiki eta ertainak susta zituzaten, landa-eremua garatzeko aukera bat izan zitezen, herritarrei mesede egin ziezaieten

Zergatik ez da egin? Administrazioek ez dute egin kudeaketa onik. Enpresa handien esku utzi da ekoizpena, eta horien helburua gero eta energia gehiago saltzea da, eta hortik etekin ekonomiko gehiago lortzea. Energiarik kutsatzaileenak poliki-poliki ordezkatzeko politikari eman behar litzaioke lehentasuna, eta energia aurrezteari, eta ez gehiago kontsumitzeari. Edozein energia motak dauka eragina ingurumenean, eta, horregatik, zenbat eta energia gutxiago behar izan, hainbat hobeki. Berriztagarren zenbait instalaziok kalte handiak egin dizkiete ekosistema batzuei eta horien bioaniztasunari.

Maiz kritikatu duzue Espainian parke eolikoak jartzeko modua. Oro har, gauzak ez dira ongi egin. Adibiderik txarrenen artean, Extremadurakoak eta Kataluniakoak daude, eta hain txarrak ez direnen artean, Gaztela Mantxakoak.

Nork egiten du parke eoliko baten ingurumen-eraginaren gaineko ebaluazioa: interesa duten enpresek edo erakunde independente batek? Ikeritu nahi den eremuaren natura-balioei buruzko informazio guztia eta proiektuak eduki ditzakeen eraginei buruzkoa, hori proiektuaren sustatzaileak aurkeztu behar du, baina ebaluazioa egiteko betebeharra administrazioak dauka. Hain zuzen, horixe esaten du urte honen hasieran Europatik iritsi den epai batek ere. Azkenik, ingurumen-erakundeak erabakiko du ebaluazioa egokia izan den eta proiektu bakoitza baimendu behar den edo ez.

Kritika egiten dizue parke eolikoak geldiarazteagatik, eta enplegua eta energia berriztagarria sortzea galarazteagatik, “txori gutxi batzuk hil ez daitezten”. Esango nieke badagoela modua gauzak ongi egiteko; planifikazio onarekin, susta litezke energia eolikoak eta gainerako energia berriztagarriak, gure ekosistemen oreka arriskuan jarri gabe edo mehatxatuta dauden espezieei kalte gehiagorik egin gabe.

Eguzki energia fotovoltaiko gehien sortzen zuen herrialdeetako bat izan da Espainia oraintsu arte, baina orain ia geldirik dago arlo hori. Arautu zen bezala araututa, inbertsio-funts bilakatu zen, eta bide eman zion espekulazioari. Gobernuak araudia aldatu zuen orduan, eta egongaitasuna eragin zuen arlo fotovoltaikoan. Horregatik da ezinbestekoa ongi planifikatzea, sustatzaileei ziurtasuna emateko. Alemaniak gaitasun fotovoltaiko gehiago dauka instalatuta Espainiak baino, gogor egin dute-lako apustu, araudi askoz argiago eta egonkorrago batekin.

Kontsumitzaileentzat ez da erreza etxean berriztagarren aldeko apustua egitea. Arazoa ez da teknologia, hori

instalatzeko egin behar diren administrazio-tramiteak baizik. Herritarrei bidea erraztu egin behar litzaike nork bere etxean behar duen argindarra sor dezan, bai eguzki-plaken bidez edo bai errota txikiekin, eta sobera geratzen zaiena sareari sal diezaioten.

Bioerregaiek ere denetariko iritziak sortu dituzte. Zenbait ikerketak esaten dute agroerregaiak ekoizteko prozesuan sortzen den CO2 kopurua handiagoa dela, erregai horiekin sistemak aurretzen duena baino. Ez da kontrolatzen zer lekutan ekoizten den, zer lan- eta gizarte-baldintzatan, eta zer eragin duten ekosistemetan.

Nola planifikatu behar litzateke berriztagarren bilakaera? Planifikazio adostua egin behar litzateke, lurralde bakoitzean zer berriztagarri komeni diren aztertu. Nazio mailan, eskualdeetan eta tokian-tokian egin behar litzateke, jendeari parte hartzeko aukera eman. Ingurumen-eragina ebaluatzeko prozedura ere berritu egin behar litzateke.

Zer erabaki hartu behar lirateke horretarako? Susta liteke eguzki-panel gehiago jartzea edo biomasa erabiltzea ur beroa sortzeko. Autoen hornikuntza bultzatu behar litzateke, leku ez-naturalak baliatuz plaka fotovoltaikoak edo errota txikiak jartzeko: teilatuak, adibidez, edo industrialdeak.

Auto-hornikuntza bultzatu? Bai, adibidez. Inguru hurbilean ekoizten den energia kontsumitzeko erraztasunak eman, eta tokiko ekoizleei erosteko aukera eskaini, bai argindarra, bai biomasa-galdarentzako erregaia, bai eguzki-panelak etxea eta ura berotzeko...

INFORMAZIO GEHIAGO
www.consumer.es

